

17/07 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, Presidentea
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Ana Marta Iriarte
Juan Carlos Jauregui
Mari Tere Ojanguren
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko irailaren 14ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek aho batez eman du ondoko irizpena: **dantzako goi-mailako arte irakaskuntzak (koreografia eta interpretazio espezialitatea) eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana ezartzen dituen Dekretua aldatzeko Dekretuari buruzkoa.**

I.- AURREKARIAK

22/2016 Dekretu bidez ezartzen da dantzako goi-mailako arte irakaskuntzen (koreografia eta interpretazio espezialitatea) Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana. Hezkuntza Sailaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan arautzen dira goi-mailako arte irakaskuntzak, eta ikasketa-plan hori bat dator Europako Goi-mailako Hezkuntza Espazioarekin eta urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuarekin, zeinaren bidez ezartzen baita Goi-mailako Dantza Irakaskuntza Artistikoen antolamendua.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek artikuluko bakarra eta azken xedapen bat ditu:

Artikulu bakarrak 5. artikuluko 6. atala aldatzen du, eta ezartzen du Dantzako ikasleek, ibilbide batek berez dituen hautazko ikasgaiez gain, gutxienez bi hautazko ikasgai praktiko egin beharko dituztela eta ikasgai horiek jatorri tradizionalako dantzaren ibilbidekoak izango direla.

Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean dekretua.

III. BALORAZIOA ETA PROPOSAMENAK

Zioen azalpenean adierazi bezala, bat baino gehiago dira 22/2016 Dekretua aldatzeko arrazoiak: hala nola, hezkuntza arloko esperientzia, dantza munduarekiko harremana eta jatorri tradizionalako dantzaren mundutik jaso diren gogoetak. Kontseiluak 15/08 Irizpenean eman zuen dekretu horri buruzko iritzia.

Indarrean dagoen dekretu horrek (5. art., 6. atala) dio ezen, ibilbide bateko berezko hautazko ikasgaiez gain, ikasleek beste ibilbide bateko gutxienez hautazko

ikasgai bat egin beharko dutela. Aldaketa sartu ondoren esaten da jatorri tradizionaleko dantza ibilbideko bi hautazko ikasgai egin beharko dituztela gutxienez.

Dekretuak ezarri bezala, derrigorrezko ikasgaiez eta espezialitatekoek gain, ikasleek hautazko sei ikasgai egin behar dituzte.

Dantzerti zentroan, Dantza espezialitatearen barruan, ibilbide hauek eskaintzen dira gaur egun:

- Euskal dantza
- Berrikuntza koreografikoa testuinguru artistikoetan eta hezkuntzaren testuinguruan

Ibilbide bat gaindituta egongo da hautazko 4 ikasgai egin direnean, eta Tituluaren Europako Gehigarrian agertuko da ibilbidea gainditu dela.

Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek uste du proposatzen den aldaketarekin ikasleek aukera dutela euskal dantzari buruzko ibilbide bat aukeratzeko, eta, gainera, aldaketak bermatu egiten du euskal dantzari buruzko gutxieneko prestakuntza izatea. Alderdi hori positiboa iruditzen zaigu, kontuan izanik, 22/2016 Dekretuan ezarritakoaren arabera, lehentasunezkoa dela Jatorri Tradizionaleko Dantza ibilbidea eskaintzea, hori izango delarik Dantzerti zentroaren nortasun ikurra.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2017ko irailaren 18a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA